



La externalización de las actividades auxiliares en la industria, el nacimiento de nuevos servicios en el marco del desarrollo tecnológico y el propio desarrollo intrínseco del sector, claves en el fuerte crecimiento de los servicios a empresas en la última década

Industriako jarduera osagarriak esternalizatzea; teknologi garapenari lotutako zerbitzu berriak sortu izana; eta sektoreak berak izan duen garapen handia: horra hor enpresentzako zerbitzuek azken hamarkadan izan duten hazkunde handiaren giltzak

El sector servicios profesionales y empresariales engloba una serie de actividades de muy distinta índole, pero cuyo denominador común es el prestar servicios a empresas, si bien entre sus clientes se encuentran también los particulares y otros organismos como, por ejemplo, la Administración Pública. Se trata de un sector muy heterogéneo, que incluye servicios que requieren una alta cualificación profesional junto con otros, como la limpieza, donde ésta es mínima.


Su importancia cuantitativa y cualitativa en el conjunto de la economía se ha visto fuertemente incrementada por el crecimiento espectacular registrado en la última década, explicable por dos factores principalmente. En primer lugar, la fuerte

Lanbide- eta enpresa-zerbitzuak izeneko sektoreak era guztietako jarduerak biltzen ditu, baina guztiek badute ezaugarri berdin bat: enpresei zerbitzuak eskaintzea, hain zuzen. Sektore horren bezeroen artean, dena dela, herritarrak eta beste erakunde batzuk ere agertzen dira, hala nola herri-administrazioak. Sektore guztiz nabarra da; izan ere, zenbait sektorek lanbide-prestakuntza handia eskatzen dute; beste batzuek, aldiz, ez dute horrelakorik eskatzen, hala nola garbiketalanek.

Zenbatekotasunari zein nolakotasunari dagokionez, gero eta garrantzi handiagoa lortzen ari da sektore hori ekonomia osoan, zeren azken hamarkadan hazkunde ikusgarria izan baitu. Bi osagaik azaltzen dute hazkunde hori. Lehenik,

Ekonomiaren eta enpresentzako zerbitzuak sektorearen benetako hazkundeak. 1989-1997. Euskal AE. (%)

Crecimiento real de la economía y del sector servicios a empresas 1989-1997. C.A. de Euskadi. (%)





demanda de las empresas industriales, inmersas en un proceso de externalización de los servicios —*outsourcing*—, en el marco de nuevas estrategias de competitividad. Esta externalización concierne sobre todo a servicios tales como la gestión y la administración (servicios jurídicos, creación de holdings, contabilidad...), el marketing, los servicios personales (por ejemplo la publicidad, las relaciones públicas ó la selección de personal), ó los servicios operativos (la limpieza y la seguridad), sin olvidar el papel de las empresas de trabajo temporal (E.T.T.), en creciente demanda y con las que la externalización llega a todos los niveles de actividad. Este proceso afecta a todos los subsectores que forman parte del sector servicios a empresas, de ahí su fuerte crecimiento.

El segundo factor a destacar es su carácter de sector de vanguardia; en él tienen cabida gran parte de las nuevas actividades que surgen como consecuencia de las últimas revoluciones en los campos de la comunicación o la ingeniería.

Todos estos factores, junto a su propio desarrollo intrínseco, son los que han convertido al sector servicios a empresas en un sector clave no sólo de la economía vasca, sino de la española en su conjunto y de la de los países de la Unión Europea, que han registrado un proceso similar.

Aumenta la importancia del sector servicios a empresas en la economía vasca en términos de riqueza generada, equiparándose al conjunto del Estado pero por debajo de la mayoría de los países de la Unión Europea

Las tasas de crecimiento del sector servicios profesionales y empresariales vasco han sido desde 1985 hasta 1997 superiores al global de la economía y a las registradas por el sector en el conjunto del Estado. La explicación a este diferencial hay que buscarla en la situación de partida. En Euskadi los servicios a empresas representaban en 1985 el 2% del total del PIB vasco, mientras en España suponían el 4,5% del PIB, es decir, contribuían muy por encima de lo que lo hacía el sector vasco, en una economía, la vasca, claramente volcada en la industria. Sin embargo, en 1994, últimos datos disponibles a nivel español, la cuota de participación es muy similar: en el conjunto del Estado los servicios a empresas representaban en 1986 el 5,6% del PIB y en Euskadi alcanzaban ya el 5,3% del PIB de la Comunidad Autónoma.

Ahora bien, a pesar de este fuerte desarrollo registrado en los últimos años, la parte del PIB que suponen los servicios a empresas tanto en la economía vasca como en la española se encuentra aún por debajo de la mayoría de los países de la Unión Europea, situándose, junto a Portugal, en la cola del grupo europeo.

industri enpresen eskari handiak, zerbitzuen esternalizazio-prozesu batean —*outsourcing*— baitaude murgilduta, lehiakortasuna lortzeko estrategia berriaren barruan. Esternalizazio hori (zerbitzuak kanpoan alokatzea), batez ere, zerbitzu jakin batzuei dagokie, hala nola kudeaketa eta administrazioari (lege-zerbitzuak, holdingak sortzea, kontabilitatea), marketingari, gizabanakoentzako zerbitzuei (adibidez, publizitatea, harreman publikoak edo langileen hautaketa), bai eta zerbitzu eragileei (garbiketa eta segurtasuna) eta aldi baterako laneko enpresei (ETTak) ere. Azken enpresa horiek gero eta gehiago eskatzen dira, eta horien bidez, esternalizazioa jardueramaila guztietara iristen ari da. Prozesu hori enpresentzako zerbitzuak sektorea osatzen duten azpisektore guztiei dagokie, eta horregatik, asko hazi da sektore osoa.

Bigarren, aipatu behar da sektore hori abangoardiako sektorea dela; bertan, komunikazioaren edo ingeniari-tzaren arloetako azken iraultzen ondorioz sortu diren jarduera berri gehientsuenak sartzen dira.


Osagai horien guztien eraginez, eta sektorearen beraren eraginez, enpresentzako zerbitzuak sektorea sektore gako bat bihurtu da, eta hori euskal ekonomian ezezik, Estatu osoko eta Europako Batasuneko ekonomietan ere gertatu da, guztiek antzeko prozesua izan baitute.

Enpresentzako zerbitzuak sektorearen garrantzia handitu egin da euskal ekonomian, sortutako aberastasunari dagokionez; orain, Estatu osokoaren parean dago, baina Europako Batasuneko herrialde gehienetakoaren azpitik

1985etik 1997ra, EAeko lanbide- eta enpresa-sektorearen hazkunde-tasak ekonomia osoarenak baino handiagoak izan dira, bai eta Estatu osokoan izandakoak baino handiagoak ere. Diferenzial hori azaltzeko, hasierako egoera hartu behar da kontuan. Euskadin, BPGaren guztizkoaren % 2 hartzen zuten enpresentzako zerbitzuek 1985ean; Estatuan, berriz, BPGaren % 4,5, hau da, horien ekarpena EAeko sektore berarena baino askoz handiagoa zen; izan ere, euskal ekonomia industriari erabat lotuta zegoen garai hartan. 1994an, (Estatu mailan, urte horretakoak dira azken datu erabilgarriak), hala ere, sektore bakoitzaren partehartze-zatiak oso antzekoak dira: Estatu osoan, BPGaren % 5,6 hartzen zuten enpresentzako zerbitzuek 1986an; Euskadin, berriz, autonomia-erkidegoko BPGaren % 5,3ra iritsi zen.

Nolanahi ere, nahiz eta azken urteetan garapen handia izan duen sektore horrek, enpresentzako zerbitzuek euskal ekonomiaren zein Estatuko ekonomiaren BPGan duten zatia Europako Batasuneko herrialde gehienetakoaren azpitik dago, eta, Portugalekin batera, azken tokitan daude.

Enpresentzako zerbitzuak sektoreak euskal BGPari egiten dion ekarpena. 1996
 Aportación del sector servicios a empresas al PIB vasco. 1996



El sector servicios a empresas es uno de los sectores económicos que más ha reducido su dependencia exterior en los últimos años

El importante desarrollo experimentado por el sector ha supuesto la progresiva sustitución de importaciones de servicios a empresas del resto del Estado por producción propia, lo que se pone de manifiesto a partir de 1990. El sector vasco no solo satisface en mayor medida las necesidades internas, sino que incluso exporta

Azken urteotan kanpoarekiko menpekotasuna gehien murriztu duten sektoreen artean dago enpresentzako zerbitzuak sektorea

Sektore horren garapena hain handia izan da ezen enpresentzako zerbitzuen inportazioak gutxitu egin baitira, batez ere, 1990etik aurrera: lehenago, horrelako zerbitzu asko inportatzen ziren Estatuko beste erkidegoetatik; orain, horien ordean, bertan produzitukoak erabiltzen dira. Euskal AEko sektoreak hobeto asetzen



servicios al resto del Estado. De un saldo negativo de algo más de 13.000 millones de pesetas en 1990 se ha pasado a registrar un superávit de más de 65.000 en 1995.

Los servicios a empresas en Bizkaia, el Territorio con mayor grado de terciarización, tienen una participación en la riqueza vizcaína del 8,8%; a un punto se sitúa Gipuzkoa mientras en Álava suponen el 5,8% de su riqueza generada

El reparto interno del valor añadido del sector, que supuso el 7,2% del PIB vasco en 1996, no ha variado sensiblemente en los últimos años, y revela un mayor desarrollo relativo del sector en Bizkaia.

El personal ocupado es, junto al valor añadido ó riqueza generada, la variable que mejor nos mide y relativiza la importancia de un sector en una economía. Es además el empleo una variable cuya importancia excede de las cuestiones puramente económicas.

El sector con mayor crecimiento neto de empleo de la economía vasca entre 1985 y 1996 ha sido con mucha diferencia el sector servicios a empresas, concretado en 44.776 personas. Por períodos se observa que, proporcionalmente, el mayor aumento se produce entre 1994 y 1996, con 15.701 empleos. Entre 1985 y 1990 el incremento fue de 23.102 personas y entre 1990 y 1994 de 5.973. El diferencial con respecto al resto de la economía ha sido considerable; incluso en un período tan recesivo como el comprendido entre 1990 y 1994, el crecimiento del personal ocupado en este sector se ralentizó, pero no llegó a tasas negativas.

Servicios a empresas es uno de los sectores de mayor ocupación dentro del terciario, por delante de la hostelería, la educación o la sanidad

En 1996 el personal ocupado en el sector servicios a empresas era, en términos absolutos, de 59.182 personas, lo que representaba ya el 8,2% del global, cuando en 1985 tan sólo ocupaba al 2% del empleo total vasco. Es decir, de cada doce ocupados en la economía vasca, uno lo está en el sector servicios a empresas.

En el conjunto del Estado el crecimiento ha sido, al igual que ocurría con el valor añadido, mucho más atenuado. Respecto a los países europeos las cifras de ocupación, tanto del sector vasco como del conjunto del Estado, se encuentran bastante lejos de países como Holanda, Bélgica, Dinamarca ó Reino Unido, donde los ocupados en los servicios a empresas se sitúan por encima del 15% del total.

Por Territorios el comportamiento ha sido muy homogéneo, mostrando evoluciones con tendencias paralelas, y manteniendo prácticamente inalterables los dife-

ditu barneko beharrak, eta, gainera, Estatuko beste erki-degoetara esportatzen ditu zerbitzuak. 1990ean, saldo negatiboa 13.000 milioi pezetatik gorakoa zen; 1995ean, berriz, superabita 65.000 milioikoa izan da.

Bizkaian, terziarizazio-maila handieneko lurraldean, bertako aberastasunaren % 8,8 hartzen dute enpresentzako zerbitzuak; Gipuzkoa puntu bat azpitik dago; Araban, berriz, sortutako aberastasunaren % 5,8 hartzen dute

Sektore horretako balio erantsia lurraldeen artean bantzen badugu, ikusiko dugu banaketa hori ez dela nabarmen aldatu azken urteetan (1996an euskal BPGaren % 7,2 hartu zuen), eta Bizkaiko garapen erlatiboa handiago dela.

Landun-kopurua da, balio erantsiarekin edo sortutako aberastasunarekin batera, sektore batek ekonomian zenbateko garrantzia duen ondoen neurtzen eta erlatibizatzen duen aldagaia. Enplegua, gainera, aparteko garrantzia duen aldagaia da, duen garrantzia ekonomia arloko arazoan gainetik egoteagatik.

Euskal ekonomian, 1985 eta 1996 artean, enpresentzako zerbitzuak sektoreak izan du, askogatik, enpleguen hazkunde garbi handiena: guztira, 44.776 landun gehiago. Aldika, ikusten da, urte batetik bestera, igogerarik handiena 1994 eta 1996 artean gertatu zela, 15.701 enplegurekin. 1985 eta 1990 artean, gehikuntza 23.102 landunekoa izan zen, eta 1990 eta 1994 artean, 5.973koa. Ekonomiako gainerako sektoreekin alderatuta, diferentziala aipagarria izan da; izan ere, 1990 eta 1994 arteko aldia oso murriztailea izan zen, eta landun-kopuruaren hazkundera moteldu egin zen sektore horretan, baina ez zen tasa negatiboetara iritsi.

Enpresentzako zerbitzuak sektorea, hirugarren sektorearen barruan, landun-kopuru handieneko bat da, ostalaritzaren, hezkuntzaren eta osasunaren aurretik

1996an, zenbaki absolutuetan, 59.182koa zen enpresentzako zerbitzuak sektoreko landun-kopurua, hau da, guztizkoaren % 8,2; 1995ean, berriz, EAeko enpleguaren guztizkoaren % 2 baino ez zuen hartzen, hau da, euskal ekonomian, hamabi landunetik bat enpresentzako zerbitzuak sektorean ari zen lanean.

Estatu osoan, balio erantsiarekin gertatzen zen bezala, motelagoa izan da hazkundera. Europako herrialdeen aldean, landun-zenbakiak, EAeko sektorean zein Estatu osoan, oso urrun daude beste herrialde batzuetakoetatik (Holanda, Belgika, Danimarka edo Erresuma Batua), horietan enpresentzako zerbitzuetako landunak guztizkoaren % 15etik gora baitaude.

Lurraldeka, portaera oso berdintsua izan da, eta bila-kaerek antzeko joerak izan dituzte; beraz, diferentzialak ez du aldaketa handirik izan hiru lurraldetan. Arabak lan-

renciales. Alava acoge el 14% del personal ocupado, Gipuzkoa casi el 30% y Bizkaia ocupa al 56% del global del sector. El reparto es casi idéntico al de la riqueza generada, dada la alta correlación existente entre ambas variables.

Las Empresas de Trabajo Temporal y la Limpieza industrial absorben el 69% del crecimiento neto del empleo del sector entre 1994 y 1996

En otro nivel de desagregación, el sectorial, cabe preguntarse si también el crecimiento ha sido homogéneo entre los muy dispares subsectores que componen los denominados servicios a empresas.

La respuesta es negativa; si bien todas las actividades de servicios a empresas han experimentado un comportamiento expansivo, aprovechando las mismas condiciones favorables, algunas han llevado claramente la iniciativa en el desarrollo del sector. Destaca el subsector suministro de personal, en el que se encuadran las empresas de trabajo temporal (E.T.T.) que suponen el 98% del total del empleo, con un incremento neto de 3.877 personas en dos años, dado que su legalización se produjo en 1994. Otro sector a destacar es el de la limpieza industrial, con 2.576 personas más en 1996 que en 1994. Se está produciendo, en cierta medida, un desplazamiento del empleo industrial hacia estos servicios, fruto del proceso de externalización de muchas actividades que antes se realizaban en el seno de las industrias y cuyo empleo se contabilizaba como empleo industrial, y que ahora las realizan empresas de servicios.


dun-kopuruaren % 14 hartzen du; Gipuzkoak, ia % 30, eta Bizkaiak sektoreko guztizkoaren % 56ri ematen dio lana. Banaketa hori eta sortutako aberastasunaren banaketa ia berdin-berdinak dira, bi aldagai horiek lotura handia baitute elkarren artean.

Aldi baterako laneko enpresek eta industri garbiketak sektoreak 1994 eta 1996 artean izandako enplegu-hazkunde garbiaren % 69 hartzen dute

Beste desagregazio-mailan ere (sektorekako mailan) galdera berdina egin daiteke: hazkundea berdina izan da enpresentzako zerbitzuak sektorea osatzen duten azpisektore guztietan?

Erantzuna ezezkoa da; enpresentzako zerbitzuetako jarduera guztiek gorantz egin dute, guztiek aldeko baldintzak aprobeztatu baitituzte; baina, batzuek aurrea hartu diete beste batzuei, sektorearen garapenean. Aipatzekoa da langile-horniketa azpisektorea, hor baitaude sartuta aldi baterako laneko enpresak (ETTak). Enpresa horiek enpleguaren guztizkoaren % 98 hartzen dute, eta gehikuntza garbia 3.877koa izan da bi urtetan, kontuan izanik 1994an legeztatu zirela. Aipatu behar den beste sektore bat industri garbiketarena da (1994an, 1996an baino 2.576 langile gehiago). Esan daiteke, neurri batean, industriako enplegua zerbitzu horietara ari dela lerratzen; izan ere, lehenago industrian bertan egiten ziren jarduera asko kanpoan alokatzen baitira orain; orduan, industriako enplegu gisa zenbatzen zen enplegu hori; orain, berri, zerbitzu-enpresek egindako lanak direla jotzen da.

Landun-kopuruaren gehikuntza garbia, azpisektoreka, 1994-1996 aldian.
Incremento neto de personas ocupadas por subsectores en el período 1994-1996.



A pesar del alto grado de atomización del sector, las empresas de más de 10 empleados, que representan tan sólo el 3,2% del total, ocupan el 54% del empleo

El tamaño medio de las empresas del sector revela un fuerte grado de atomización. El empleo medio por establecimiento es de 3,1 ocupados. En 1996 el 97% de las

Nahiz eta sektorea oso atomizatuta dagoen, 10 langiletik gorako enpresek, hau da, guztizkoaren % 3,2k, enpleguaren % 54 hartzen dute

Sektore horretako enpresen batez besteko tamainak erakusten duenez, sektorea guztiz atomizatuta dago. Establezimenduko batez besteko enplegua 3,1 landune-



empresas tenían menos de 10 empleados y, de ellas, el 71% menos de dos ocupados.

En resumen, el sector muestra un predominio de pequeñas empresas, en muchos casos por las propias características de la actividad, pero coexistiendo con un reducido número de empresas de un tamaño significativo —la media de empleados de las mayores de 50 es de 125— y en general con vinculaciones a grupos empresariales de carácter más amplio.

koa da. 1996an, enpresen % 97k 10 langiletik behera zituena, eta horietarik, % 71k bi landunetik behera.

Laburbilduz, sektore horretan nagusi dira enpresa txikiak, kasu askotan, jarduera bera horrelakoa izateagatik; baina, aldi berean, badira tamaina aipagarria duten enpresa gutxi batzuk ere (handienen batez besteko landun-kopurua 50etik 125era artekoa da), eta, gehienetan, enpresa-talde handiagoei lotuta egoten dira.

Establezimendu-kopuruaren eta landun-kopuruaren sektorekako banaketa. 1996
Distribución sectorial del número de establecimientos y personal ocupado. 1996

	EUSKAL AE C.A. DE EUSKADI		ARABA ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	Establezimenduak Establecimientos	Enplegua Empleo	Establezimenduak Establecimientos	Enplegua Empleo	Establezimenduak Establecimientos	Enplegua Empleo	Establezimenduak Establecimientos	Enplegua Empleo
GUZTIRA / TOTAL	18.923	59.182	2.552	8.490	9.907	33.141	6.464	17.551
1. Onibar-jarduerak Actividades inmobiliarias	2.049	3.415	308	532	903	1.598	838	1.285
2. Makineriaren alokairua Alquiler de maquinaria	775	1.567	116	225	402	845	257	497
3. Informatika-jarduerak Actividades informáticas	661	4.186	74	593	378	2.554	209	1.039
4. Ikerketa eta garapena Investigación y desarrollo	123	1.667	28	303	57	642	38	722
5. Lege-jarduerak Actividades jurídicas	4.106	6.079	479	802	2.228	3.429	1.399	1.848
6. Ekonomi jarduerak Actividades económicas	2.128	6.562	243	703	1.274	3.795	611	2.064
7. Arkitektura Arquitectura	2.156	2.815	278	405	1.153	1.522	725	888
8. Ingeniaritzak Ingenierías	1.196	4.470	206	468	607	3.113	383	889
9. Bestelako zerbitzu teknikoak Otros servicios técnicos	757	1.260	106	221	417	715	234	324
10. Saiakuntza eta analisi teknikoak Ensayos y análisis técnicos	80	556	4	28	51	405	25	123
11. Publizitatea Publicidad	592	1.457	70	154	326	809	196	494
12. Langile-honiketa Suministro de personal	199	5.398	37	1.198	103	2.725	59	1.475
13. Segurtasun-zerbitzuak Servicios de seguridad	119	3.954	22	407	58	2.480	39	1.067
14. Industri garbiketa Limpieza industrial	954	10.417	208	1.613	444	5.840	302	2.964
15. Argazkilaritza Fotografía	450	783	58	98	233	436	159	249
16. Idazkaritza. Publizitateari erantsiak Secretaría. Anexas a publicidad	838	1.605	77	167	467	901	294	537
17. Bestelako enpresa-jarduerak Otras actividades empresariales	1.740	2.991	238	573	806	1.332	696	1.086

El 59% de los establecimientos de servicios a empresas se concentran en las tres capitales. En Vitoria-Gasteiz el porcentaje se eleva al 89% del total alavés, mientras que Bilbao y Donostia-San Sebastián reúnen en torno al 55% de los servicios a empresas de los dos Territorios


En cualquier caso, la proximidad al cliente y a los centros financieros y económicos son causas de la concentración, sobre todo en alguna de las actividades que forman el sector. Otras, sin embargo, dada la carestía de los locales en las capitales y la proliferación de polígonos industriales y de los denominados parques tecnológicos, tienden a situarse en las afueras; se trata de actividades de alto valor añadido, muchas de ellas encuadradas en este sector.

Enpresentzako zerbitzuetako establezimenduen % 59 hiru hiriburuetan bilduta daude. Vitoria-Gastezien, ehuneko hori Arabako guztizkoaren % 89ra iristen da; Bilbok eta Donostiak, berriz, bi lurralde horietako enpresentzako zerbitzuen % 55 inguru biltzen dute

Betiere, bezeroengandik eta finantza eta ekonomia arloko guneetatik gertu egoteak establezimenduak biltzea eragiten du; batez ere, sektore hori osatzen duten jarduera batzuetan. Beste batzuetan, ordea, hiriburuetako lokalak garestiak izaten direnez eta industrialdeak eta teknologi elkartegiak direlakoak gero eta ugariagoak direnez, aldirietan finkatzen dira. Balio erantsi handiko jarduerak izaten dira, eta horietako asko sektore horretan bilduta daude.

Talde edo holding batekoak diren enpresen ehunekoak eta horien eremua. (%)

Porcentaje de empresas que pertenecen a un grupo o holding y su ámbito. (%)



El tamaño de la empresa se revela como una característica determinante a la hora de pertenecer a un grupo empresarial ó holding, si bien un porcentaje aceptable de pequeñas empresas —menos de 6 empleados— tienen más de un establecimiento (el 24%), tan sólo el 8% de ellas pertenecen a grupos empresariales; y en las mayores de 5 empleados, el porcentaje se eleva al 32,7%. Por actividades, destacan los servicios de seguridad, con un 66% de empresas encuadradas en grupos que en el 46% de los casos son de carácter estatal. Lo mismo ocurre en las empresas de trabajo temporal, donde el 48% forman parte de grupos, de los que, además, un 48,5% son internacionales. Otro sector a destacar en este sentido es el que presta servicios informáticos.

Ikusten da enpresen tamaina aldagai erabakigarria dela enpresa-talde edo holding batekoa izateko orduan; izan ere, nahiz eta enpresa txiki zenbaitzuk —6 langiletik beherakoak— establezimendu bat baino gehiago duten (% 24), % 8 baino ez dira enpresa-talde batekoak. 5 langiletik gorakoetan, ehuneko hori % 32,7koa. Jardueraka, segurtasun-zerbitzuak aipatu behar dira, enpresen % 66 taldetan bilduta baitituzte; gainera, horietarik, % 46 estatu mailakoak dira. Gauza bera gertatzen da aldi baterako laneko enpresekin, % 48 talderen batekoak baitira; gainera, horietarik, % 48,5 nazioartekoak dira. Aipatu beharreko beste sektore bat informatika-zerbitzuak eskaintzen dituen da, hor ere enpresa asko talde handietakoak baitira.


Más de la mitad de los establecimientos del sector han iniciado su actividad a partir de 1994

Otra característica que refleja el dinamismo del sector servicios a empresas es la poca antigüedad de los establecimientos. El 77% de los establecimientos del sector han sido creados a partir de 1990 y de ellos nada menos que el 56,9% han iniciado su actividad entre 1994 y 1996.

El análisis por actividades revela que esta particularidad es común a todas ellas, si bien se acentúa en las empresas de trabajo temporal, que en un porcentaje del 82,1% han iniciado su andadura a partir de 1994,

Sektoreko establezimenduen erdiak baino gehiago 1994an hasi ziren lanean

Establezimenduen banaketa irekitze-urteari jarraiki. (%)
Distribución de los establecimientos por años de apertura. (%)



Enpresentzako zerbitzuak sektoreko enpresak ez dira oso zaharrak, eta horrek ere erakusten du sektore hori oso dinamikoa dela. Sektoreko establezimenduen % 77 1990etik aurrera sortu ziren, eta horietarik, % 56,9 1994 eta 1996 artean hasi ziren lanean.

Jarduerak aztertzen baditugu, ikusiko dugu gaztetasun hori jarduera guztietan gertatzen dela. Hala ere, aldi baterako laneko enpresak are gazteagoak dira, % 82,1 1994an hasi baitziren zerbitzuak eskaintzen, urte horretan legezta-



consecuencia directa de su legalización. Señalar otros sectores como el inmobiliario y los servicios informáticos con proporciones que superan el 60%, sin olvidar el conjunto de las otras actividades empresariales que, por su carácter residual, recogen aquellas novedades no encuadradas en otros sectores, y que en un 75,2% han sido creadas a partir de 1994.

El estudio de las características del personal ocupado en cuanto a su cualificación, formación, ó estructura permite profundizar en el conocimiento del sector y en las diferencias y semejanzas de las distintas actividades que lo componen.

La estructura del empleo por sexo revela que en el conjunto de los servicios profesionales y empresariales el porcentaje de mujeres empleadas se eleva al 43%, por encima de la media de la economía (36%)

No obstante, si el análisis se realiza por actividades, se ven fuertes disparidades; mientras en el sector de limpieza industrial las mujeres llegan a suponer el 78% del empleo ocupado, en los servicios de seguridad apenas suponen el 14%.

En relación al conjunto del Estado, en todos los sectores comparables es mayor el porcentaje de mujeres en la C.A. de Euskadi, excepto en servicios informáticos.

La estructura del personal, por su vinculación contractual, refleja que solamente el 16% de los trabajadores son autónomos, frente al 20% del conjunto de la economía. Nuevamente las diferencias entre los distintos tipos de servicios son muy acusadas. En algunos, como las actividades jurídicas ó los servicios de arquitectura el protagonismo de los autónomos es considerable, rondando el 50%. En otros servicios técnicos como las ingenierías, en las actividades de investigación y desarrollo, la seguridad o el suministro de personal su presencia es prácticamente nula. La realidad en el conjunto del Estado es en este caso plenamente coincidente.

Otra característica de tipo cualitativo que permite clasificar los distintos servicios profesionales es la cualificación del personal ocupado.

La disparidad en la cualificación del personal no sólo se produce en razón de la actividad ó el servicio de que se trate, sino que también en razón del tamaño de los establecimientos.

En los establecimientos de más de 5 empleados es alto el porcentaje de personal no cualificado, el 65%. Por contra, en tareas directivas se encuadra tan sólo el 4,3%. Nuevamente las cifras oscilan al alza o a la baja en función del sector, influyendo decisivamente en el global servicios de baja cualificación que aglutinan mucho personal, como la limpieza y la seguridad. En el polo opuesto otras actividades, en las que la presencia de personal sin cualificación es muy pequeña, tales como actividades jurídicas, la infor-

tzaren ondorioz. Beste sektore batzuetan ere, hala nola onibar-jarduerak eta informatika-zerbitzuak, ehunekoak oso handiak dira (% 60ren gainetik). Era berean, ez dira ahaztu behar bestelako enpresa-jarduerak ere; izan ere, talde hori saski-naski bat da, eta hor biltzen dira beste inon sar ez daitezkeen jarduerak. Esan behar da jarduera horien % 75,2 1994tik aurrera sortuak direla.

Landunen prestakuntza-maila edo egitura aztertzen badugu, sakonago ezagutuko dugu sektore hori; era berean, ezagutuko dugu sektorea osatzen duten jarduerak zertan diren berdinak eta zertan ez.

Enpleguaren sexukako egitura aztertzen badugu, ikusiko dugu lanbide- eta enpresa-zerbitzuen multzoan emakume landunen ehunekoa % 43koa dela, hau da, ekonomiako batez bestekoaren gainetik dagoela (% 36)

Nolanahi ere, azterketa jardueren arabera egiten bada, alde handiak ikusten dira: industri garbiketako sektorean, landun-kopuruaren % 78 hartzen dute emakumeek; segurtasun-zerbitzuetan, berriz, % 14 baino ez dira.

Estatu osoaren aldean, sektore alderagarri guztietan handiagoak dira emakumeen ehunekoak Euskal AEn, informatika-zerbitzuetan izan ezik.

Langileriaren egiturak erakusten digunez, langileen % 16 baino ez dira beregainak, kontratu-loturari dago-kionez; ekonomia osoan, berriz, % 20 dira. Berrito ere alde handiak daude zerbitzu batzuen eta beste batzuen artean: batzuetan (lege-jarduerak edo arkitektura), beregainek pisu handia dute, % 50 ingurukoa; beste zerbitzu tekniko batzuetan (ikerketa eta garapena, segurtasuna edo langile-horniketa), aldiz, ia ez dago horrelako langilerik. Kasu horretan, gauza bera gertatzen da Estatuan ere.

Lanbide-zerbitzuak sailkatzeko beste aldagai bat landunen prestakuntza-maila da.

Langileen prestakuntzan, alde handiak daude, eta alde horiek jardueraren edo zerbitzuaren arabera ere ezezik establezimenduen tamainaren arabera ere badira.

5 langiletik gorako establezimenduetan, prestakuntzarik gabeko langile asko dago, % 65; zuzendaritza lanetan, aldiz, % 4,3 baino ez da biltzen atal horretan. Berrito ere zenbakiak gora edo behera egiten dute sektorearen arabera, eta eragin erabakigarria izan dute zerbitzuen guztizkoan langile asko biltzen duten jardue- ra batzuek, hala nola garbiketak eta segurtasunak. Beste jardue- ra batzuetan, aldiz, hala nola lege-jarduerak, informatika edo zerbitzu teknikoak, hau da, enpresentzako


mática ó los servicios técnicos, es decir, lo que se consideran servicios avanzados a las empresas.

Ahora bien, en las pequeñas empresas el panorama es bien diferente. Toma mayor protagonismo el personal en funciones de dirección y gerencia, que supone en la media del sector el 31,6%. La existencia de un alto porcentaje de autónomos en los que el empleado es el empresario y diri-

zerbitzu aurreratuetan, prestakuntzarik gabeko oso langile gutxi dago.


Dena dela, enpresa txikietan, gauzak oso bestelakoak dira. Pisu handiagoa dute zuzendaritza edo kudeaketa lanetan ari diren langileek (sektorearen batez beste koan, % 31,6). Beregain askoren kasuan, langilea beraz izaten da enpresaburua, eta berak zuzentzen du enpre-

Enpleguaren banaketa sexuaren eta lan-egoeraren arabera. (%)
 Distribución del empleo por sexo y situación laboral. (%)





Enpresentzako zerbitzuak sektoreko landunak, prestakuntzaren eta sexuaren arabera. (%) Personal ocupado del sector servicios a empresas, según su cualificación y sexo. (%)



ge su propia empresa eleva el porcentaje sensiblemente. La cifra de técnicos es, sin embargo, muy similar en los dos estratos de tamaño, lo que refleja que las diferencias son en realidad de organización y no de cualificación.

sa; horrek, jakina, nabarmen igoarazten du ehunekoa. Teknikarien zenbakia, dena dela, oso antzekoa da bi tamaina-geruzetan; beraz, aldeak antolaketa mailakoak dira, eta ez prestakuntzakoak.

El 22% del personal recibe cursos de formación, siendo los técnicos y titulados los que acuden en mayor medida (44%)

La formación constituye uno de los elementos claves en un sector con actividades de alta cualificación y comprometido con las nuevas tecnologías. La rapidez con la que evolucionan las tecnologías de la información y la comunicación obliga al reciclaje continuo de los profesionales de todos los sectores y, muy específicamente, de los servicios avanzados a empresas.

Son estos sectores los que, lógicamente, gastan más recursos en formación, destacando los servicios informáticos y las actividades de investigación y desarrollo que en 1996 tuvieron cerca de la mitad del personal realizando cursos de formación.

Los servicios técnicos —ingenierías, arquitecturas,— así como las actividades jurídicas y económicas recicla-

Langileen % 22k prestakuntza-ikastaroak jasotzen ditu, eta teknikariak eta tituludunak joaten dira gehien ikastaroetara (% 44)

Prestakuntza aldagai erabakigarria da hau bezalako sektore batean, prestakuntza-maila handiko jarduerak dituen eta teknologia berriei lotuta dagoen sektore batean. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek hain laster bilakatzen ari dira ezen sektore guztietako, eta, batez ere, enpresentzako zerbitzuetako sektore guztietako langileek etengabe hobetu behar baitute beren burua.


Logikoa denez, sektore horiek gastatzen dute gehien prestakuntzan. Guztien artetik, informatika eta ikerketa eta garapena aipatu behar dira; sektore horietan, langileen erdiek prestakuntza-ikastaroren bat egin zuten 1996an.

Zerbitzu teknikoek (ingeniaritzak, arkitektura,...) zein lege- eta ekonomi jarduerak langileen % 30etik gora bidali

ron a más del 30% de su personal, situándose la media del sector en el 22%. En el otro extremo figuran las actividades con mano de obra menos cualificada: limpieza, alquiler de maquinaria y seguridad.

Diferenciando el personal por su grado de cualificación, son los técnicos y titulados los que acuden en mayor medida a cursos de formación (44% en el total del sector), seguidos del personal directivo (37%) y administrativo (34%) y en último lugar el personal no cualificado, que en un porcentaje de sólo el 10% recibió algún curso en 1996.

Prestakuntza-ikastaroak egiten dituzten landunak. (%)
Personal ocupado que realiza cursos de formación. (%)



zuten hobekuntza-ikastaroetara; sektore osoaren batez bestekoa, berriz, % 22koa izan da. Beste muturrean, prestakuntza-maila txikieneko laneskua duten jarduerak daude: garbiketa, makineriaren alokairua eta segurtasuna.


Langileak prestakuntza-mailaren arabera banatzen badiugu, ikusiko dugu teknikariak eta tituladunak joaten direla gehien prestakuntza-ikastaroetara (% 44 sektore osoan); ondoren, zuzendaritzako langileak (% 37) eta administrariak (% 34) daude, eta, azken tokian, prestakuntzarik gabeko langileak (horien artean, % 10ek baino ez zuen jaso ikastaroren bat 1996an).

El 41% de los cursos recibidos tienen relación con la ofimática y la tecnología informática

La rapidez con que evoluciona la renovación de equipos y sistemas informáticos ha incrementado la sensibilidad de las empresas hacia los cursos de reciclaje del personal en este campo. Dentro del tipo *Otros* destacan los relacionados directamente con la profesión.

Jasotako ikastaroen % 41 ofimatikarekin eta informatika-teknologiarekin lotuta daude

Egindako prestakuntza-ikastaroeren motak. (%)
Tipología de los cursos de formación realizados. (%)



Informatikako tresnen eta sistemen berrikuntzaren bila-kaera gero eta lasterragoa da; hori dela eta, enpresek gero eta argiago dute langileei hobekuntza-ikastaroak eman behar dizkietela arlo horretan. "Bestelakoak" atalaren barruan, lanbidearekin zuzenean lotutakoak aipatu behar ditugu.



Más del 85% de los establecimientos del sector tienen ordenadores personales y fax

El nivel de equipamiento del sector servicios profesionales y empresariales es acorde con el carácter vanguardista de gran parte de las actividades que lo conforman; el 86% de los establecimientos del sector disponen de ordenadores personales y el 85% de fax. El 50% tiene modem. Solamente en las pequeñas empresas de seguridad y limpieza el porcentaje de empresas que dispone de ordenadores personales desciende por debajo del 50%.

El tamaño del establecimiento tiene cierta influencia en este análisis, al menos a ciertos niveles, si bien no en lo que pudiera denominarse equipamiento básico, los ordenadores personales y el fax. El modem, por ejemplo, es utilizado por el 60% de los establecimientos de más de 5 empleados, mientras que el porcentaje en las pequeñas baja al 35%. Los porcentajes se elevan considerablemente en las actividades que implican cierto nivel de cualificación, como las relacionadas con la informática y los servicios técnicos.

Para terminar el estudio del sector, se analizan otros dos indicadores estructurales: el ámbito geográfico de actuación de las empresas del sector y el tipo de clientela a la que dirigen su actividad.

Hay dos variables que influyen en el ámbito geográfico de actuación de los establecimientos del sector: el tamaño del establecimiento y la actividad. El 92% de los establecimientos de menos de 5 empleados venden en la comarca ó entorno próximo. De las grandes, el porcentaje se reduce al 84%.

Las grandes empresas de ingeniería venden el 67% de sus servicios fuera del ámbito vasco

La presencia en el extranjero se reduce al 5% de los establecimientos más pequeños, elevándose al 14% en el caso de los mayores de 5 empleados. Destacan las actividades de investigación y desarrollo, donde el 58% de los establecimientos vende en el extranjero.

Sektoreko establezimenduen % 85ek baino gehiagok ordenadore pertsonalak eta faxa dituzte

Lanbide- eta enpresa-zerbitzuetako sektorearen hornikuntza-maila bat dator sektorea osatzen duten jarduera gehientsuenak abangoardiakoak izatearekin: sektoreko establezimenduen % 86k ordenadore pertsonalak dituzte, eta % 85ek, faxa; % 50ek modema dute. Enpresa txikietan (segurtasuneko eta garbiketako enpresetan), aldiz, ordenadore pertsonala duten enpresen ehunekoak % 50etik behera jaisten dira.

Establezimenduen tamainak ere badu eraginik azterketa honetan, gutxienez, zenbait mailatan; dena dela, ez du eraginik oinarriko hornikuntza delakoan (ordenadore pertsonalak eta faxa). Modema, adibidez, 5 langiletik gorako establezimenduen % 60an erabiltzen da; enpresa txikietan, berriz, ehunekoak % 35era jaisten dira. Ehunekoak nabarmen igotzen dira prestakuntza-maila handi bat eskatzen duten jardueretan, hala nola informatikarekin eta zerbitzu teknikoekin lotuetakoetan.


Sektore hau aztertzen amaitzeko, egiturazko beste bi adierazle aztertuko ditugu: sektoreko enpresek zein eremutan diharduten eta nolako bezeroei zuzentzen dieten beren jarduera.

Bi aldagaik eragiten dute sektoreko establezimenduen jarduera-eremuan: establezimenduaren tamainak eta jarduerak. 5 langiletik beherako establezimenduen % 92k eskualdean edo inguruan saltzen dute. Handien artean, ehunekoak % 84ra jaisten dira.

Ingeniaritza-enpresa handiek zerbitzuen %67 gure erkidegotik kanpo saltzen dituzte

Atzerrian saltzen duten establezimenduen kopurua % 5era jaisten da txikienetan; 5 langiletik gorakoetan, berriz, % 14ra igotzen da. Ikerketa eta garapeneko jarduerak aipatu behar dira; horien artean, establezimenduen % 58k atzerrian saltzen baitituzte produktuak.

Enpresentzako zerbitzuetako hornikuntza. (%)
Equipamiento en los servicios a empresas. (%)



Ahora bien, si se tiene en cuenta el valor de las ventas, la importancia de la comarca se reduce considerablemente; aún así el conjunto de la C. A. de Euskadi resulta ser el mercado más importante del sector, acaparando el 73% de las ventas de los establecimientos mayores de 5 empleados y el 90% de las de los pequeños. El extranjero tan sólo representa el 7,6% en los primeros y un 1,6% en los de menos de 5 empleados.

El tipo de actividad es también aquí determinante, provocando grandes diferencias. Las ingenierías, por ejemplo, se apartan de la media del sector facturando el 23,9% de los servicios en el extranjero, si bien son las mayores de 5 empleados las que determinan esta proporción, con el 24,2% de las transacciones fuera de España; de hecho el 67% de sus ventas las realizan fuera de Euskadi. En el caso de Investigación y Desarrollo, si bien la presencia en los mercados de fuera de la Comunidad vasca es muy importante, en términos de ventas se reduce sensiblemente su importancia; concretamente sólo el 8% de las ventas lo son por prestación de servicios en el extranjero.

En cualquier caso, en todos los sectores las ventas dentro de Euskadi superan el 70% del total.

El tipo de clientes de las empresas del sector es otra de las características que se ven determinadas tanto por la actividad de que se trate como por el tamaño del establecimiento.


Nolanahi ere, salmenten balioa kontuan hartzen bada, eskualdearen garrantzia askoz txikiagoa da; hala eta guztiz ere, EAE bera da sektoreko merkaturik garrantzitsuena, 5 langiletik gorako establezimenduetako salmenten % 73 eta txikienetako salmenten % 90 hartzen baititu. Atzerriak lehenengoen % 7,6 baino ez ditu hartzen, eta % 1,6, 5 langiletik beherakoetan.

Jarduera-mota hemen ere erabakigarria da, alde handiak eragiten baititu. Ingeniaritzak, adibidez, sektoreko batez bestekotik urruntzen dira, zerbitzuen % 23,9 atzerrian fakturatzen baitituzte. Ehuneko horiek, dena dela, 5 langiletik gorakoek ezartzen dituzte, salerosketen % 24,2 Estatutik kanpo egiten baitituzte; izan ere, salmenten % 67 Euskaditik kanpo egiten dituzte. Ikerketa eta garapena sektorearen kasuan, nahiz eta garrantzia handia duen Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo, nabarmen jaisten da garrantzia hori, salmentei dagokienez: hain zuzen, salmenten % 8 baino ez dira atzerrian zerbitzuak eskaintzeagatik.


Edonola ere, sektore guztietan, guztizkoaren % 70etik gora daude Euskadi barruan egiten diren salmentak.

Sektoreko enpresen bezero-motan ere eragin handia du jarduerak berak zein establezimenduen tamainak.

Jarduera-eremua. (%)
Ambito geográfico de actuación. (%)



Salmenten banaketa. (%)
Distribución de las ventas. (%)





Las empresas son los principales clientes del sector, absorbiendo más de la mitad de sus ventas

En los establecimientos de más de 5 empleados son las industriales las que suponen un mayor porcentaje (36%). La Administración Pública absorbe el 26% del total. En los establecimientos de menos de 5 empleados, sin embargo, la importancia de la Administración es muy pequeña (5%), y son los particulares los que cobran gran relevancia, abarcando el 41% de las ventas del sector. La empresas constituyen también para las pequeñas el principal cliente, con una cuota del 54% del total, ocupando en este caso la primera posición las empresas de servicios (25%).

La evolución del sector servicios profesionales y empresariales vasco descrita y su desarrollo se enmarca en el proceso de terciarización que desde hace más de una década experimenta la economía vasca. A pesar de la fuerte especialización industrial, el sector servicios está adquiriendo una dimensión relevante en términos absolutos y, sobre todo, relativos. Dentro del sector terciario el crecimiento de los servicios a empresas se produce, sobre todo, en los últimos años. La creciente demanda de este tipo de servicios por parte de la industria, fruto de nuevas formas de organización, ha empezado a ser satisfecha por empresas radicadas en la Comunidad Autónoma de Euskadi, en un proceso de sustitución de importaciones del resto del Estado, tal y como ponen de manifiesto las Tablas Input Output de la C. A. de Euskadi. Sin embargo, se constata que existe todavía campo suficiente para pensar que el sector puede seguir desarrollándose en un futuro. Por una parte, se está lejos aún de los niveles que representa en la media de la Unión Europea, en cuanto a porcentaje del PIB; por otra parte, la demanda de ciertos servicios como los tec-


Enpresak dira sektoreko bezero handienak, salmenten erdiak baino gehiago hartzen baitituzte

5 langiletik gorako establezimenduetan, industriakoak dira ehuneko handiena ematen dutenak (% 36). Herri-administrazioak guztizkoaren % 26 hartzen du. 5 langiletik beherako establezimenduetan, berriz, administrazioak oso garrantzi txikia du (% 5); herritarrek, aldiz, pisu handia hartzen dute, sektoreko salmenten % 41 hartzen baitute. Enpresak dira, era berean, txikien bezero onenak, guztizkoaren % 54 hartzen baitute; kasu horretan, zerbitzu-enpresak daude lehenengo tokian (% 25).


Honaino, EAEko lanbide- eta enpresa-zerbitzuak sektoreak nolako bilakaera izan duen azaldu dugu, eta ikusi dugu sektore horren garapena gure ekonomiak azken hamarkadan jasan duen terziarizazio-prozesuaren barruan kokatzen dela. Nahiz eta gure ekonomia industrian espezializatuta dagoen, zerbitzuak gero eta pisu handiago hartzen ari dira, zerbaki absolutuetan eta, batez ere, zerbaki erlatiboetan. Hirugarren sektorearen barruan, enpresentzako zerbitzuen hazkundeak, batez ere, azken urteetan gertatu da. Industriak, antolaketak-era berrien eraginez, gero eta gehiago eskatzen ditu horrelako zerbitzuak, eta orain

Euskal Autonomia Erkidegoan finkatutako enpresek auzerik dute eskari hori; hori dela eta, Estatuko beste erkidegoetatik egiten ziren inportazioen ordez, bertako zerbitzuak erabiltzen dira, Euskal AEko input-output taulek erakusten dutenez. Dena dela, ikusten da oraindik ere nahikoa tarte geratzen dela, eta sektorea garatuz joango dela etorkizunean. Izan ere, oraindik urrun gaude sektore horrek Europako Batasunean hartzen dituen batez bestekoetatik, BPGaren ehunekoetan, behintzat. Bestal-

Bezeroen banaketa. (%)
Distribución de la clientela. (%)



1-5 Langileko establezimenduak
establecimientos 1-5 empleados



> 5 Langileko establezimenduak
establecimientos > 5 empleados

nológicos, informáticos y de consultoría de todo tipo por parte de la industria, sobre todo, tiene que seguir siendo creciente, dado el grado de desarrollo industrial existente y las necesidades derivadas de la integración en el Mercado Unico, de cara a disminuir posibles desventajas competitivas. ■

de, zenbait zerbitzuren eskaria, hala nola teknologia, informatika eta era guztietako aholkularitza, haziz joango da industrian, sektore horrek duen garapen-mailarengatik eta merkatu bakarrean sartzeak sortuko dituen behar-rengatik, horrela lehiatzeko desabantailak gutxitu ahal izango baitira. ■

Lanbide- eta empresa-zerbitzuetako enpresa nagusiak, alfabeto-hurrenkeraren arabera
Principales empresas de servicios profesionales y empresariales por orden alfabético

ABB TABESA, S.A,
ADECCO EMPRESA DE TRABAJO TEMPORAL
ANDERSEN CONSULTING, S.L.
ARTHUR ANDERSEN Y CIA. SOCIEDAD COMANDITARIA
BULL ESPAÑA, S.A.
CADAGUA, S.A.
COMERCIAL DE LIMPIEZAS VILLAR, S.A.
DEGREMONT MEDIO AMBIENTE, S.A.
DIGITAL EQUIPMENT CORPORATION ESPAÑA, S.A.
ELECTRONICA Y TECNICOS CONSULTORES, S.A.
EULEN, S.A.
FERIA INTERNACIONAL DE BILBAO
FUNDACION INASMET
GESTION DE MEDIOS, S.A.
IBERMATICA, S.A.
IBM ESPAÑA, S.A.
IDOM INGENIERIA Y CONSULTORIA, S.A.
INFORMATICA EL CORTE INGLES, S.A.
INSTALACIONES SIDERURGICAS, S.A.
KVAERNER METALS COSIM, S.A.
LABORMAN EMPRESA DE TRABAJO TEMPORAL, S.A.
LANDATA SISTEMAS, S.A.
LANTIK, S.A.
PROYECTOS E INSTALACIONES DE DESALACION, S.A.
PROCESOS Y SISTEMAS DE SEPARACION, S.A.
PROSEGUR COMPAÑIA DE SEGURIDAD, S.A.
RANK XEROX ESPAÑA, S.A.
SENER INGENIERIA Y SISTEMAS, S.A.
SUTEGUI, S.L.
VIZDÜRR, S.A.



Esta publicación recoge un análisis de los resultados de la Encuesta al sector Servicios Profesionales y Empresariales y del Directorio de Actividades Económicas correspondiente a las divisiones 70 (excepto 70.201), 71, 72, 73 y 74 de la Clasificación Nacional de Actividades Económicas CNAE-93.

Se ofrece una visión de la evolución del sector en los últimos años profundizando en sus características estructurales con tres ejes fundamentales de análisis: el Territorio, la actividad y el tamaño del establecimiento.

La Encuesta al sector Servicios Profesionales y Empresariales es una operación estadística que se realiza bienalmente y de la se obtiene información económica sectorial y territorial muy detallada, siendo los últimos datos disponibles los correspondientes a 1996. El Directorio de Actividades Económicas facilita una relación nominal de todos los establecimientos con actividad económica en la Comunidad Autónoma de Euskadi, así como su actividad a nivel de subclase (5 dígitos) de la CNAE y su personal ocupado, siendo los últimos datos disponibles los correspondientes a 1996.

Argitalpen honetan, Lanbide- eta Enpresa-Zerbitzuak sektoreari buruzko Inkestaren eta Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendaren (Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionaleko – JESN-93ko 70 (70.201 izan ezik), 71, 72, 73 eta 74 atalak) emaitza nagusiak biltzen dira.

Bertan, erakusten da nolako bilakaera izan duen sektore horrek azken urteetan, eta egiturazko ezaugarriak sakenago aztertzen dira, hiru azterketa-ardatz nagusiren inguruan: lurraldea, jarduera eta establezimenduen tamaina.

Lanbide- eta Enpresa-Zerbitzuak sektoreari buruzko Inkesta bi urtean behin egiten den estatistika-eragiketa bat da, eta hortik sektorekako eta lurraldekako ekonomi datu oso zehatzak lortzen dira. Erabilgarri dauden azken datuak 1996ri dagozkionak dira. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendak Euskal Autonomia Erkidegoan ekonomi jardueraren bat duten establezimendu guztien banakako zerrenda ematen du, bai eta beren jarduera (JESNko azpimota mailan - 5 digituka) eta landun-kopurua ere. Erabilgarri dauden azken datuak 1996ri dagozkie.

INFORMAZIO-ESKAERA

Galderaren bat egin nahi baduzu edo datu gehiago behar baduzu, hemen aurkituko gaituzu:

EUSTAT (Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística)
Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 18 75 00
Faxa: 945 18 75 01
e-mail: eustat@eustat.es
www.eustat.es

SOLICITUD DE INFORMACIÓN

Para cualquier consulta o ampliación de los datos, pueden dirigirse a:

EUSTAT (Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística)
Duque de Wellington, 2
01010 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 18 75 00
Fax: 945 18 75 01
e-mail: eustat@eustat.es
www.eustat.es



Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO